

USURBIL – ELKARGUNEA

1. SAIO IREKIA

Eguna: 2024/02/03

Ordua: 9:30-13:30

Tokia: Udarregi Ikastolako jangela

Bildutakoak:

- Guztira, 27 lagun; % 40 emakumeak eta gainerako % 60 gizonak
 - Usurbilgo Udaleko 2 arduradun-politiko
 - Elhuyarreko partaidetza eta eraldaketa soziala arloko 2 aholkulari
-

Landutakoak:

1. Sarrera eta kokapena



Hasteko, Usurbilgo Udaleko kultura arloko zinegotziak, Jon Mikel Azpiazu Zubeldiak, partaideei harrera egin eta bilerari hasiera eman dio *Elkargunea proiektuaren definizio partekatua osatzeko partaidetza-prozesua* kokatuz. Era berean, Elhuyarreko aholkulariak aurkeztu ditu: Idurre Zugazagasti Aja eta Leire Lizarralde Alberdi.

Ondoren, Elhuyarreko aholkulariek ongi etorria eman, eta bilerako edukiei heldu aurretik hainbat ohar eman dituzte:

- Bat, partaideei baimen-orria betetzeko eskatu zaie.
 - Bi, pegatinan norberaren izena idatzi eta paparrean itsastea proposatu da.
-

Jarraian, *Elkargunea proiektuaren definizio partekatua osatzeko partaidetza-prozesuko* 1. saioko planteamendua konpartitu dute:

- Sarrera eta partaidetza-prozesua aurkeztea
- Girotzerako dinamika bat egitea
- Proiektuaren ideia landu duten 4 eragileek egindako ibilbidea partekatu eta identifikatutako beharrak konpartitu eta osatzea
- Atsedenaldia
- Elkargunean zer gertatzea nahi dugun hausnartzea
- Hurrengo urratsak aurkeztea
- Balorazioa egitea

2. Usurbilgo Elkargunea proiektuaren definizio partekatua osatzeko partaidetza-prozesua aurkeztea

Maialen Iñarra Arregik, Usurbilgo Udaleko zinegotziak, gobernu-taldearen izenean, Elkargunea proiektuaren definizio partekatua osatzeko partaidetza-prozesuarekiko asmo, espektatiba, baldintza eta erabakiak partekatu ditu.

- Hasteko, adierazi da Usurbilgo Udaletik ilusioz jaso zela Aztarririk, Gaztelekuak, Kulturguneak eta Ziortzak 2023ko maiatzean egindako eskaera, izaera desberdineko lau eragile elkarlanean aritzea eta behar komunen alde lanean ikustea pozgarria dela adieraziz.
- Eskaera hura aztertu, eta besteak beste, hurrengo erabakiak hartu direla: alde batetik, Elkargunea proiektua definitzeko partaidetza-prozesua abiatzea; bestetik, Elkargunea proiektua kokatzeko herrian beste eraikinik ez dagoela ikusirik, eraikin berri bat egiteko konpromisoa hartzea, Udarregi Ikastola pareko berdegunean kokatuko dela erabakitzearekin batera. Eta 2023-2027 legealdi-planean lehentasunezko egitasmo bezala kokatu da.
- Behar diren erabileretara doitutako eraikin bat egingo dela, eta ondorioz, eraikinak berdegunearen zati bat soilik hartzea aurreikusten dela.
- Bai gobernu-taldean, bai udal barruan, kudeaketaren gaiak ezinegona sortzen duela ere aitortu da, kontuan hartuta izaera desberdineko eragileak gaudela eta bata eta bestearen egiteko moduak batzen asmatu beharko dela.
- Eta Elkargunea proiektua definitzeko partaidetza-prozesuarekin egin bezala, ekipamendua eraikitzeko betebeharrak eta lanei lehenbailehen heltzeko prestutasuna dagoela, baina, hala ere, pazientzia beharko dela. Eta eraikina izan bitarte, garrantzitsua izango dela eragileon arteko elkarlanari bide ematea eta gaur egungo indarrei eusteko moduak bilatzea.


Honekin bat, Elhuyarretik Elkargunea proiektuaren definizio partekatua osatzeko proposatutako partaidetza-prozesuaren helburuak, lan-prozesua eta aurreikusitako lan-egiturak zeintzuk diren konpartitu da.

- **Helburuak:**

Usurbilgo Elkargunea proiektuaren definizio partekatua osatzea, Elkargunean parte hartu nahi duten eragile, nahiz norbanakoen parte hartzea bermatuz.

- Helburuak eta balioak adostea
- barne-antolaketa eta kudeaketa eredia definitzea
- Eraikinaren antolaketa eta diseinua proposatzea
- Izen bat adostea
- iradokitzaile izan daitezkeen beste esperientzia eta ekipamendu komunitario batzuk ezagutzea
- Usurbilgo Elkargunea proiektuaren definizio partekatua gizarteratzea
- Eraikina eraiki bitarteko lan-dinamika proposatzea

- **Lan-prozesua eta lan-egiturak:**



3. Girotzea

Testuinguru honetan, talde-lanaren garrantzia azpimarratzeko girotze-ariketa bat egin dugu. Zehazki, talde bakoitzari material jakin bat eman diegu eta eskura duten materialarekin mahai gainean berez, bakarrik, eutsiko den eta goienean plastilinazko bolatxoak izango duen egitura eraiki behar izan dute.

Behin denbora agortuta, partaideei nola sentitu diren galdetu diegu, ariketa honek Elkargunea proiektua definitzeko abiatu dugun partaidetza-prozesuarekin dituen loturak konpartitzearekin batera:



- Talde-lanean jardutea zer den esperimentatzea: rolak eta lanak banatzearen garrantzia.
- Helburua argi izatea, nora iritsi nahi dugun denok partekatzea.
- Bakoitzak ekarpena beretik egitea: ezagutzen aniztasunari balio ematea.
- Baliabideen eskuragarritasuna eta denboren kudeaketa egokia egitea.
- Proba eta errorea; jarrera eraikitzailetik jardutea; sormenari toki egitea; eta beste esperientzia batzuetatik ikastea.
- ...



4. Elkargune Proiektuaren ideia landu duten 4 eragileek egindako ibilbidea partekatu eta identifikatutako beharrak konpartitu eta osatzea

Oinarri sendoak beharrezkoak diren ideari tiraka, Elkargunea proiektuaren oinarriak landu dituzten lau eragileei, hau da, Aztarrika Gazte Asanbladako kideei, Gaztelekuko hezitzaileei, Kulturguneko kulturgileei eta Ziortza taldeko gazteei hitza eman diegu Elkargunea proiektuaren aurrekariak ezagutu eta identifikatu dituzten beharrak konpartitzeko. Mahai-inguru formatuan, eragile bakoitzari galdera bana luzatu diogu.



- Hasteko, eta sustatzaile nagusi bezala, Aztarrika Gazte Asanbladarekin hasi gara. Aztarrika Gazte Asanbladaren helburu nagusia da gazteen beharrak identifikatu, borrokatu eta alternatibak eraikitzea; eta helburu honen egikaritzean, besteak beste, gazteok kudeatzeko espazioak lortzeko bideari ekin zenioten, Gazte Asanbladaren asmoak, indarrak eta ametsak biderkatuko dituelakoan. Azaldu zein izan den bide hori eta zeintzuk diren gaur egun Aztarrikak dituen beharrak.

2020an abiatu genuen prozesu hau, gazte-egun baten bueltan. Pandemia garaia zen eta gazteak bereziki zapalduak ari ginen izaten. Eta gazte-egun hartako ondorio nagusiak eta egoera horren aurrean zein alternatiba proposatu genituen aurkeztuko dut. Batetik, gazteen indibidualizazioa eta atomizazioa areagotzen ari zela ikusi genuen eta egoera honen aurrean beharra ikusten genuen gazteen artean sen komunitarioa indartzekoa. Bigarrenik, gazteok aisialdian eta gizartean zein rol daukagun hausnartu genuen eta ikusi genuen, oro har, kontsumitzaile hutsak garela eta egoera honen aurrean gazteok gure alternatibak sortzeko gai izan behar garela.

Bigarren puntu honi lotuta, neoliberalismoaren kulturarekin apurtzeko beharra ikusi genuen, eta ondorioz, gure aisialdia politizatzea. Hirugarrenik, pandemiak belaunaldi desberdinen arteko haustura ekarri zuen, transmisioan eten bat emanez, eta honi buelta emateko, hau da, transmisioa sustatzeko eremuak sortu behar genituela. Laugarrenik, sistema hau injustua iruditzen zaigu eta horrenbestez, sistema honetatik haratagoko beste modu batera bizitzeko ereduak sortu eta eskaini behar ditugula, gazteok helburu hau lortzera azpiratu behar dugularik. Eta kulturari dagokionean, atzerriko erreferenteak gero eta ugariago dira eta beharrezko ikusten dugu erreferente kultural berriak sortzea. Guzti honekin ondorio batera iritsi ginen: gazteok kudeatuko genuen espazio bat behar genuela, gure sentituko genuena eta bertan gu antolatu eta gure jarduerak aurrera eramatea ahalbidetuko lukeen espazio bat behar genuela. Ondorio honetatik abiatuta Badator izeneko prozesua abiatu genuen, Badator gaztetxea: urte bete iraun zuen parte hartzeko prozesua izan zen eta hau egin ondoren okupazioa besterik ez zen falta. Okupaziorako unean baina Usurbilgo Udalarekin hizketan hasi ginen eta gazteon beharrak ase zitzakeen irtenbide baten bila; orduan hurbildu ginen antzeko beharrak izan zitzaketan eragileen bila (Kulturgunea, Gaztelekua...) eta hemendik abiatzen da Elkargunea proiektuaren lanketa.

- *la garai berean, hainbat norbanako eta eragile Usurbilgo kulturagintza aztertzen hasten zarete, sormena, plazak, komunikazioa eta transmisioa lan-ildo dituen Kulturgunea sortuz. Kontatu nolakoa izan den sorrera eta zeintzuk diren zuen asmoak, eta noski, asmo horiek egikaritzeko identifikatutako beharrak.*

Kultur arloko hainbat lagun elkartzen hasi ginen gure beharrak eta nahi kulturalak asetzeko, diziplina desberdinetako jende bat bildu ginen eta Kulturgunea sortzea erabaki genuen, bakoitza bere aldetik ibiltzen delako bai sorkuntzan, baita antolakuntzan ere eta hau bateratzeko beharra ikusten genuen, elkarri laguntzeko dinamikak sustatzearekin batera. Denbora honetan hainbat jarduera egin ditugun arren badira oraindik erantzun gabeko hainbat behar, zeinak Elkarguneko proiektuan kokapena duten, hala nola: herriko kulturagintza eta sozializazioa uztartzea; diziplina anitzen artean sormen prozesu berriak bultzatzeko beharra; jarduera jendetsuetarako espazio zabal eta estali baten beharra; kultura modu informalean bizi eta sentitzeko guneak izatea, besteak beste kontzertuak, ekitaldiak... zutik egin eta ikusteko espazio bat; sortzaileen arteko esperientzia truke eta sorkuntzarako baliabideak; eta

azkenekoz, euskal kulturgintzaren transmisioa bermatzeko nahia, euskal erreferenteei sostengu emanaz.

- Ibilbide luzeagoa du Ziortza Gazte Elkarteak. Urteak daramatzazue udaran kanpaldiak antolatzen, baina urtean zehar ere hainbat ekimen antolatzen dituzue, azken urteetan bilakaera bat izan dutenak eta 12 eta 18 urte bitarteko nerabe eta gazteen parte hartzea handia izaten dutenak. Zer da, zehazki, egiten duzuen? Eta zer behar duzue?


DBH eta Batxilergoko nerabe eta gazteei zuzendutako aisialdia eskaintzen dugu, baita momentu puntual batzuetan LHko 5 eta 6. mailako nerabeei ere. Gure ekintza nagusia udako kanpaldiak dira, hala ere, urtean zehar hainbat jardura antolatzen ditugu, eta hain zuzen, jardura hauetan asko hazi da nerabe eta gazteen parte hartzea; egun, 100 lagun inguru biltzen gara. Hainbeste lagun elkartzea pozgarria den arren, gaur egun ez dugu hainbeste nerabe eta gazte biltzeko leku aproposik, ez estalperik; horrez gain, zerbitzu publikoko ordutegiak maiz ez datoz bat gure ordutegiarekin, eta honek hainbat jardura baldintzatzen dizkigu. Bestalde, gure dokumentazioa eta materiala gordetzeko leku duin bat behar dugu; eta, azkenik, nerabe eta gazteek ere behar dute gu gabe, hezitzaileok gabe, euren garapen, aisialdi eta sozializatorako eremu bat.

- Eta Gaztelekua, Gizarte eta Heziketako zerbitzu publikoa zarete, doakoa eta eskuragarria. 12 eta 16 urte nerabe eta gazteen garapen konstruktibo eta osasungarria duzue ipar, aisialdia eta ikuspegi komunitarioa oinarri; zeri buruz ari gara? Zein behar dituzte Usurbilgo nerabe eta gazteek?

Gaztelekua 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako udal-zerbitzua da; astelehen, ostegun eta larunbat arratsaldetan, 16:00etatik 19:00etara zabaltzen dena. Bertako hezitzaileok Elkargunea proiektura gehitzea erabaki genuen Usurbilgo nerabe eta gazteentzako onuragarri izango den proiektu bat dela ikusten dugulako, baita Gaztelekuko, zein bertako parte hartzaileen behar desberdinei erantzuten dielako. Bat, gazteek euren egunerokoan eta aisialdian, Gaztelekuak eskaintzen dituen egun horietatik haratago, aisialdirako leku bat izan dezaten. Bi, Gaztelekua toki txiki eta mugatua delako eta hainbat jardura egiteko zailtasunak ditugulako. Hiru, gazteek euren kabuz, hezitzaileak gabeko guneak eskatu eta behar dituztelako. Lau, maiz adin-tarte honetako nerabe eta gazteak zerbitzu, programa... desberdinetatik kanpo gelditzen direlako eta beste eragile batzuekin batera, espazioa konpartitzeak, eurei toki egitea, elkarlanerako aukerak zabaltzen dituelako.



Mahai inguruan konpartitutakotik lau eragileek mahai gaineratutako beharrak paretan itsatsi ditugu, hauek osatzeko tartea zabalduz:



Hona saioko parte-hartzaileek egindako ekarpenak:

- *Eraikinak administrazio-gela, sukaldea, aldagelak, komunak... izan behar ditu. Bilera-gelaren bat ere egoki litzateke.*
- *Dantza taldearen entseguetarako espazio bat izatea, ordutegien menpe egon gabe.*
- *Diziplina anitzeko eragileentzako espazio izatea, erabilera anitzeko espazioa izatea.*
- *Eguneroko materiala biltzeko leku bat izatea. Egunero erabiltzen ez den materialerako beste biltegi batzuk egon daitezke, baina egunerokoan erabiltzen dugun materialarentzat toki bat behar da.*
- *Egunerokoan bizitza izatea, bai barruan, baita kanpoan ere; eta ez dadila soilik ekintza puntaletarako ireki.*
- *Eraikinaren belardia ere aisialdirako erabiltzea eta Elkargunetaren parte izatea.*
- *Sozializatorako eremu izatea eta Usurbilgo askotariko herritarren topagune izatea; erdigunetik ateratzea behartuko gaituelarik.*
- *Eremu digitalak lantzeko proiektu eta tresnek toki izatea.*
- *Eroso sentituko garen eta seguru egongo garen espazio bat izatea.*
- *Eskulanak, pankartak... egiteko lekua izatea.*

- Gaueko aisia eskaintzea.
- Hamabi urte azpiko haurrak ere kontuan hartzea, Udarregi Ikastolarekin elkarlanak bilatzea.
- Herritar guzientzat izatea, belaunaldi guztien arteko harremanak ematea.
- Kultur laborategi bati toki egitea.
- Taberna-zerbitzua izatea, egunerokoan; edo jarduera daudenean barra bat izatea, ez taberna ikuspegitik baizik eragileen diru-iturri bezala erabili daitekeena.

5. Elkargunean zer gertatzea nahi dugun hausnartzea

Atsedenaldiaren ondoren, partaideei zutik jarri eta gelan zehar mugitzeko eskatu diegu; eta musika etetean, hironaka jarri eta hurrengo galderak erantzuteko eskatu diegu:

- Zer nahi dugu Elkargunean gertatzea?
- Nola irudikatzen dugu Elkargunea 5 urte barru? Zer gertatuko da bertan?
- Eta 20 urte barru? Zer nolako egoera irudikatzen duzue?

Azkenengo errondan, hironaka jarri ordez, seiko taldean jartzeko esan diegu, eta mahaietan eserita, Elkargunean zer gertatzea nahi duten eta nahi duen horrek zein beharri erantzuten dion hausnartzea proposatu dugu, zergatian eta zertarakoan sakonduz.



Beheko taulan jasotzen da talde bakoitzean hitz egin eta konpartitutakoa:

1. TALDEA

- Taberna eta kontzertu gunea konektatuta egotea, ate *korredera* edo horrelako zerbaitekin (Dokako estiloan)
- Eragileez gain, norbanakoak ere proiektuaren parte izatea. Elkargunea betiko talde eta jende berdinen bueltan ez zentratzea. Zentzu irekia ematea.
- Lokal bat ez dela argi izatea.

- Eguneroko bizitzan eskuragarri egongo den gune bat izatea.
- Kudeaketa udalarekiko % 100ean menpekoa ez izatea eta autogestioa lehenestea, formaltasun apur bat alde batera utziz.
- Hemendik 20 urtera proiektuaren motorra izan gabe, tiraka ibili behar izan gabe Elkarguneaz gozatzen jarraitzea.
- Hemendik 20 urtera gu ere parte izaten jarraitzea.
- Espazio segurua izatea.

2. TALDEA

Zer nahi dugu 5 urte barru gertatzea?

- Ko-sorkuntza tailerrak gazte eta nerabeekin.
- Txirikordaren urteurren festa bertan egitea.
- Partaide sentitzea, eroso sentitzea.
- Proiektuaren jarraikortasuna bermatuta egotea.
- Kudeaketak ondo funtzionatzea: eragileen arteko bizikidetzatza osasuntsua eta eraginkorra izatea.
- Usurbilen sozializatzeko espazio erreferente izatea.

Nolakoa irudikatzen dugu Elkargunea hemendik eta 20 urtera?

- Ekonomikoki eta energetikoki burujabe izatea.
- 94koen 50 urteko urteurren festa bertan egitea.
- Beste herrientzat erreferentziatzko gune izatea.
- Eguneratuta egotea, herriaren errealitatera, baina helburu eta balioak argi edukita.

Nor falta da?

- Eragileetan parte hartzea kostatzen zaien norbanakoak.
- Hezkuntza-eragileak; transmisioaren lanketarako ezinbestekoak.
- Jatorri askotariko jendea.
- Adin ezberdineko jendea.
- Gurasoak.

3. TALDEA

- Erreferentziatzko gunea izatea zerbait antolatzeko garaian, eragile zein norbanako izan.
- Hezkuntza eragileak haientzako espazio gisa hartzea, aurrera begira espazio erosoak izan dadin. Barne zein kanpo espazioa horretarako egokitzea.
- Adinekoentzako espazio aproposa izatea: dantzalekua.
- Leku bizia izatea; ateak irekita izatea.
- Etorkizunera egokitze ahalmena izango duen espazioa izatea.
- Herriak dinamizatuko duen espazioa izatea.

- Eragileen gain norbanakoak aktibatuko dituen gunea izatea. Eragileen beharretatik harago herritarren beharrei erantzungo diena.
- Espazio dinamikoa izatea, mugikorra eta aldakorra. Aldi berean bi ekintza egiteko aukera izatea.
- Transmisioari toki egingo zaion toki izatea.
 - o Jakituria: formakuntza mota ezberdinak. .
 - o Belaunaldiartekoa.
 - o Bizitzeko modu bat/asko sustatuko dituena.
- Jolaserako leku aproposa izatea.
- Komunitatean funtzionatzea.

4. TALDEA

- Nola kudeatu? Giltzak, erabilera...
- Garai berrietara egokitzeko beharra: behar berriak, jende berria, digitalizazioa...
- Herri inauteri/maskarada/libertimendu moduko bat kontsolidatuta egotea.
- LHko umeak bertan parte hartzeko irrikan egotea, zaharragoak izatean, adibidez, kontzertuak ikustera joateko gogoia izatea.
- Euskal Herriko sortzaileen egonaldiak antolatzeko gunea izatea, ondoren herriari zerbait eskaintzearen truke.
- Erresistentzia-gunea: gure kulturari eta ideia politikoei eusteko gunea.
- Belaunaldi berriak batera: adinez aurrera joan ahala espazioa gure sentitzen jarraitzea.
 - o Batxata klaseak, asteazken saltseroak.
- Jubilatuekin kontatzea, beraienzat ere gauzak antolatzeko, edo beraiek erakartzeko gauzak egitea.
- Musika taldeek entseatu eta zuzenekoak prestatzeko leku egokia izatea, soinu ona izatea.
- Umeak dituztenek ere joan daitezkeen leku bat izatea, umeek ere jolas egiteko aproposa izatea.
- Gaur egunean aktiboki parte hartzen ez dutenek etorkizunean proiektuaren parte izatea.
- Antolatutako ekintzak irekiak eta herri ikuspegiarekin izatea, ez eragile soil batentzat bakarrik.
- Liberatutako langile batzuk kudeaketaren arduradun izatea.

Azkenik, talde bakoitzeko bozeramaileak taldean hitz egindakoa talde handian konpartitu du eta hausnarketa eta eztabaidarako tarte zabalduta da. Besteak beste, tabernaren gaia, barne- eta kanpo-espazioa, harrera, antolaketa-eredua, eragile eta norbanakoen elkarrekintza... izan dira eztabaidatutako gaiak. Jarraian, hitz egindakoak:

- **Tabernaren gaiari dagokionez**, aukera desberdinak jarri dira mahai gainean:
 - o *Eztabaidan aritu gara. Aukera desberdinak daude: aukera bat da errentagarria den negozio gisa jartzea, taberna bat balitz bezala, norbait lanean... Horrek, baina, ekonomikoki bideragarria behar luke eta zaila ikusten dugu Usurbilgo tabernen egoera*

den bezalakoa izanda. Beste aukera bat da ekitaldietan soilik irekitzea, eta hor hutsunea legoke egunerokotasun horretan. Tartekoa izango litzateke, underground taberna bat, eragileek autogestionatutakoa, baina argitzeko kontuak leudeke kasu horretan ere (lege-kontuak, irabazi ekonomikoarekin zer egin...).

- **Funtzionamenduari, antolaketari eta kudeaketari** dagokionez, gai desberdinak izan dira hizpide:
 - *Benetan argitu beharrekoa eta aurrerago etorriko dena, noski, nolabait, kudeaketa ekonomikoa eta antolaketa nolakoa izango den da. Sarri, hasieran ilusioz ekiten diogu, eta zenbakiak, gorabeherak... etortzen direnean, hor etor daitezke gatazka-uneak.*
 - *Izaera komunitarioaren garrantzia funtzionamenduaz hitz egiten dugunean etorriko da, eta kolektiboki pentsatzeak dakarren hori guztia presente izan beharko dugu.*
 - *Funtzionamenduari lotuta: Zeren arabera eta nola antolatuko ditugu gauzak? Nola antolatuko gara gure artean? Gure arteko elkarrekintza eta elkarrengana nolakoa izango da? Jardun propioa edukiko du eragile bakar batek?*
 - *Eragile desberdinok helburuarekin bat egiten dugunean eragin-eremua zabalagoa, eta, beraz, eragina ere eraginkorragoa izango da.*
 - *Helburu partekatuak baditugu.*
 - *Saihestu beharko dugu guztia antzerako pertsonen gain uztea.*
 - *Elkarrekin aritzeko bideak bilatzen hasi behar dugu dagoeneko, indartsu iristeko eraikina dugun une horretara.*
 - *Benetan lanean hasten garenean orduan sumatuko dugu elkarren beharra.*
 - *Koordinazio-gune batek egon behar du, eta elkarlanerako guneak, bideak, proiektuak behar ditugu. Baina oreka bilatu beharko dugu eragile bakoitzak ere bere espazioa, bere bidea... izan eta egin dezan.*
 - *Garrantzitsua izango da hemen ez dauden eragileak ere gerturatzea, elkarlaguntzarako ere balio dezakeelako, indarrez ahul dagoenari laguntzeko.*
 - *Norbanakoak ere ez genituzke kanpo utzi behar.*
- **Espazioaren, inguruaren, ekipamenduaren inguruan...**
 - *Eszenatokia beti jarrita? Kenduta? Bozgorailuak? Taldean hitz egindako ondorioa nolabait izan da behar guztietarako oinarria behar dugula, eta gero beharraren arabera egokitu...*
 - *Helburua izan beharko da espazio horiek ahalik eta moldagarriena izatea, beti ere, ditugun beharren arabera.*
 - *Helburua izango da aurrez herrian ez dagoen espazioa egitea, herrian baditugulako hainbat espazio.*

- *Bi espazioz hitz egiten ari gara, diafanoak eta nahiko handiak. Behar desberdinak ditugun eragileak baikaude (une batean posible da 100 pertsona biltzea, eta kontzertu bateko prestaketa-lanak egiten egotea...). Hau da, une berean bi ekintza gauzatzeko aukera emango duen espazioa behar luke izan.*
- *Baita, gogoan izan behar dugu espazioak herrian ez daudenak behar luketela. Herrian baditugu-eta hainbat espazio.*
- *Musikarako espazioaz hitz egiten ari bagara, garrantzitsua izango da hasieratik akustikoki ona izatea.*
- *Harrera irudikatzen jarrita, irudikatzen dugu atea ireki, eta, espazio handi bat. Kristalera eduki dezake?*
- *Kanpo-eremuak aukera eman behar liguke ekintzak egiteko, aterpea behar luke izan.*
- *Jendea erakartzeko erraztasunak eskaini behar ditugu.*
- *Belar-gunea errespetatzearen ideia garrantzitsua da, presente dugu.*
- *Eraikinaren altura zaintzean ere bat gatoz.*

6. Hurrengo urratsak partekatzea

Saioa ixte alde, eta balorazioa egin aurretik, hurrengo urratsak zeintzuk diren gogoratu ditugu:

- Otsailaren 17an, larunbata, beste esperientzia batzuk bisitatzerara joango gara. Proposamena Oñatiko Eltzia egitasmoa eta bertako Gaztelekua bisitatzera da, oraindik guztiz itxia ez dugun arren. Egun honetarako izen-ematea eskatuko da, izen-emandako pertsona kopuruaren arabera autobusa jarriko baita.
- Martxoaren 16an, larunbata, bigarren saio irekia eta Elkargunea proiektuaren helburu eta balioei egingo diegu toki.

7. Balorazioa

Lehenengo saioari amaiera emateko, balorazioa egin dugu. Horretarako, borobilean kokatu gara eta beheko baieztapenekin ados egonez gero borobilean pausu bat aurrera eman dugu.

- Gustura egon naiz eta errepikatuko dut.
- Espagetiak ikusi eta izutu naiz.
- Aztarrrikako / Gaztelekuko / Kulturguneko / Ziortzako / Beste eragile bateko kide naiz.
 - *Eta norbait falta dela uste duzue? Elkargunea proiektura hurrengo eragileak hurbiltzea ere interesgarri izan daitekeela konpartitu da, hala nola: Udarregi Ikastola, Zirimara, Aginagako eta Zubietako herri-eskolak, Txirikorda, Zaintza-ekosistema (jubilatua...).*
- Proposatutako dinamika eta ariketetan eroso sentitu naiz.
- Saioa luzeegia izan da.



- Saioa bukatu eta pote bat hartzeko asmoa dut.

Balorazioari lotuta, partaide batek adierazi du partaideen artean hika erabiltzeko hautua eginez gero, egoki ikusten duela baina toka eta nokaren erabilera zuzena egitea beharrezkoa dela.

Azkenik, eskerrak eman eta hurrengo hitzordu arte agurtu gara.
